

Baiña, usotxo, zu gora  
eta ludikuok zer  
zure iduri gabe?  
Zu urrinduz gero, ene!,  
illun lezaratuta,  
argirik eztabe.

Bizitz-mendiak barna  
eskar-apurrak an-or  
sasitzan galduta,  
bide ez-ezaun biurriz  
gaixo uts-utsok nora jo  
Zuk lagunge txixta?

Ez; itxaro-argiak  
dizdiz begi emaro,  
eguzkik lez goizez:  
Miren, uso goi-zale,  
amatxo amultsu dot,  
maite nau biotzez.

Ez, oi!, ezta amarik bein  
semeagaz aitzu;  
Miren'ek be eztausku iñoiz  
maiterik ukatu.

## GEZIZ ZAURITUA

«O caritatis victima!»  
(Hymn. of. S. Teresiae)

Oi maitasun! Jainko, su, onaren iturri,  
ekaitz osteko ostadar, ametsen joan-irri,  
bizitz olerkiaren lenengo neurtitza,  
zu gabe osin illun litzake sortitza.  
Garra biztu oi dozu barrengo muiñean,  
ta irri leunak loratu ezpanen gaiñean.

## Jazoa

Laiño gardenpean  
zerbait egazka...  
Ni, txepel antzera,  
berari soka.

Urtzi'k bidalia,  
zerutarra antzez;  
suduna dirudi  
gorputz egalez.

Izpizko estuntza  
dakar buruan,  
eguzkiak letxe  
goiz alaitsuan.

Arpegiz irrikoi,  
makoa eskuz,  
bera dagi egaz  
goia zeartuz.